



## **Mungiak ilusioz espero du igandeko, abenduak 24, Olentzero eta Mari Domingiren ongiatorria**

- **Kalejira Landetxo Goikoan (Izenduba Basoa) hasiko da 16:30ean eta udaletxean amaituko da 18:00etan, herriko kaleak zeharkatu eta gero.**
- **Ibilbidea bere formatu tradizionalan mantenduko du Udalak**
- **Mungiaiko ikastetxeetako 200 mungiar baino gehiagok eta herriko hainbat elkartek emozioz beteriko ikuskizuna eskainiko dute udaletxean.**

**Mungia, 2023ko abenduaren 18a.** Urteko gaurik magikoena ospatzeko astebete besterik geratzen ez denean, Olentzerok eta Mari Domingik Alaitz Erkoreka Mungiaiko alkatearekin bildu dira Landetxo Goikoan abenduaren 24an izango diren kalejirako eta ongiatorrirako azken xehetasunei buruz hitz egiteko. Izan ere, argi geratu da plana: 16:30ean abiatuko dira Landetxo Goikotik, euren etxetik, eta 18:00ak aldera iritsiko dira udaletxera, kaleetan zehar mungiarrei eta bisitariari agurrak, poza eta ilusioa banatu ondoren.

Horrela, urteko unerik ilusionagarrietako baterako atzerako kontaketa hasten da, eta alkateak adierazi duen bezala, "ilusioa eta magia herritar guztien artean banatzeko unea da, batez ere txikien artean. Mungia argiz eta kolorez beteta dago eta datorren igandeko ongiatorria ikusgarria izan dadin gehiago apainduko dugu". Gaurko topaketari dagokionez, "niretzat ohorea da Olentzerorekin eta Mari Domingirekin pertsonalki hitz egitea, datorren igandeko kalejirari eta ongiatorriari begira azken xehetasunak emateko. Batzuentzat lehen aldia izango da, beste batzuentzat asko izango dira, baina herritar guztientzat ohikoa dena da irribarreak izango direla, zalantzarik gabe, abenduaren 24ko arratsalde gauean".

Mungiak bere formato tradizionalarekin mantenduko du ibilbidea, beti ospakizun honen inguruan izan diren ohiturak errespetatuz. Kalejira Landetxo Goikoan hasiko da, eta Landetxo, Lauaxeta, Errekaxu, Ibaibide, Alkartasuna, Trobika, Erribide eta Elordugoitiako kaleak zeharkatuko ditu. Azkenik, udaletxean, mungiarrek abestiekin eta dantzekin hartuko dute kalejira. Bertan hasiko da Olentzerok eta Mari Domingik Mungiaiko haur bakoitzari eskaintzen dioten harrera. Ikuskizun hunkigarria izango da eta herriko ikastetxeetako eta herriko hainbat elkartetako 200 lagunek baino gehiagok hartuko dute parte.

2023an, Mungian Euskeraz Alkartea, Basapizti Taldea, Tallu Mendizale Taldea, Amilotx Dantza Taldea, Gure Ametsa Txistulari Taldea, J.M. Arregi Abesbatza, Txispeleta Eskaut Taldea, Udala Musika eta Dantza Eskola, Bentades Ikastetxea, Larramendi Ikastola, Laukarizko Eskola, Legarda Ikastetxea eta Guraso Elkartek elkartu dira ikuskizunera. Udalak elkarte eta erakunde horiei guztiei euren partaidetza eskertzen die, izan ere, euren esker "Olentzeroren Etorrera" posible egiten da.

### **Mari Domingik Olentzerori zuzendutako gutunak jasoko ditu**

Aurretik, abenduaren 22an eta 23an, 17:00etatik 20:00etara, Mari Domingik Olentzerori zuzendutako gutunak jasoko ditu Izenduba Basoan. Gainera, abenduaren 22an, 18:00etan,



Gabonetako postontzia jarriko da Matxin plazan Olentzerori eta Mari Domingiri zuzendutako gutunak uzteko, eta hurrek makillaje tailer batean parte hartu ahal izango dute.

### **Gabonetan bizi Mungia**

Gabonak ez dira Olentzero eta Mari Domingi bakarrik, beraz, Mungiako Udalak, "Gabonetan bizi Mungia" lelopean, egitarau bizia prestatu du publiko guztientzat. Gabonetako Azoka, Gabonetako haur parkea, Gabonetako kankak, tailerrak, kale ikuskizunak, kontzertuak, zinea, haurrentzako jolasak, ur festa kiroldegian, herri kirolak, scape room bat eta talo postuak izango dira abendu osoan zehar egiten ari diren jardueren egutegia osatuko dutenak.

Amaitzeko, urtarrilaren 5ean, Erroso Jaia ospatuko da, Gabonetako erroskoaren banaketa tradizionala txokolate beroarekin. Ekitaldi honetan haurrentzako ikuskizun bat egongo da Gaur Jaia taldearen eskutik eta bildutako guztia STOP FA elkartearentzat izango da, Mungiako haur batek pairatzen duen Friedreicheko Ataxia izeneko gaixotasun arraro bat ikertzeko proiektua finantzatzeko laguntzeko.

Programazio osoa [www.mungia.eus](http://www.mungia.eus) helbidean dago eskuragarri.